

Datuetara sartzeko eskubidea

Zertan datza?

Herritarrok eskubidea daukagu edozein fitxategitako arduradunari galdetzeko, guri buruzko daturik badagoen fitxategian eta datu horien xehetasunak zein diren.

Aplikatu beharreko araudia

- 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa, [15. artikulua](#)
- 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, datu pertsonalen fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoa, [8. artikulua](#)
- [308/2005 Dekretua](#), urriaren 18koa, datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea garatzen duena, 6., 7. eta 8. artikulua
- [1332/94 Errege Dekretua](#) (pdf, 23 kB), 12. eta 13. artikulua

Administrazio edo erakunde publiko baten aurrean eskubidea erabiltzea Datuetara sartzeko eskubidea erabiltzeko baldintzak

- Datuetara sartzeko eskubidea erabiltzea nahitaez norberak egin beharrekoa da eta horregatik, interesdunek zuzenean gauzatu beharrekoa, fitxategien arduradun/titular bakoitzaren aurrean.
- Fitxategi baten dauden datu pertsonaletara sartzeko eskabidea, datu pertsonaletara sartzeko xedez zure datuak tratatzeko aginpidea duen Administrazioaren fitxategiaren arduradunaren aurrean gauzatzen da.
- Fitxategiaren arduradunaren helbidea zein den ez badakizu, Datuak Babesteko Euskal Bulegora jo dezakezu eta informazio hori eskatu 945 016230 telefonoan, avpd@avpd.es posta elektronikoan, edo www.avpd.es web orriaren bitartez
- Datuetara sartzeko eskubidea **ezin izango da gauzatu 12 hilabetetik beherako tarteetan**, behar bezala justifikatutako bidezko interesa ez badago, behintzat.
- Epeak.
- Arduradunak eskaeragileari erantzun egin beharko dio, eskabidea jasotzen den egunetik **gehienez ere hilabeteko epean**.
- Epe horretan datuetara sartzeko eskabideari berariaz erantzun ezean, eskaera ukatutzat eman beharko da.
- **Datuetara sartzeko eskubidearen eskabidea onetsi egiten bada, arduradunak hala jakinarazi beharko dio** interesdunari, azken honek aukeratzen duen moduan, **onespenaren egunetik hamar eguneko epean**.
- Informazioak irakurtzeko eta ulertzeko moduan eduki beharko ditu
- Fitxategian sartuta dauden datuak,
- Edozein lanketa, prozesu edo tratamendutan sortutakoak,
- **Datuen jatorria**,

- **Lagapen-hartzaileak** (datu horiek zein erakunde eta organizazio publiko edo pribaturi komunikatu zaizkien edo komunikatzea aurreikusten den) eta
- **Datuok zein erabilera eta helburu zehatzetarako** biltegitatu ziren.

Nombre de archivo: Documento1
Directorio:
Plantilla: C:\Documents and Settings\EJ00873T\Datos de programa\Microsoft\Plantillas\Normal.dot
Título:
Asunto:
Autor: EJ00873T
Palabras clave:
Comentarios:
Fecha de creación: 30/03/2010 10:47:00
Cambio número: 1
Guardado el:
Guardado por:
Tiempo de edición: 0 minutos
Impreso el: 30/03/2010 10:47:00
Última impresión completa
Número de páginas: 2
Número de palabras: 493 (aprox.)
Número de caracteres: 2.712 (aprox.)